

argazkigintza > argi-ITZALAK



Afrika. Bost neskato, buru gainean zama daramatela denak ere.

Sentipenen argazkilaritza

Mamen Mari donostiarrak aitoren urratsei jarraitu die, eta irudigintza du bizitzeko eta sentitzeko bide.

IDOIA ETXEBERRIA

Aitonak erakutsi zion argazkilaritzaren magia, irudiaren esanahia. «Argazki denda zuen, eta neskatala nintzela, laborategian ibiltzen nintzen berarekin». Zazpizortzi urterekin oparitu zioten lehen argazki kamera Mamen Mari donostiarrari, lehen jaunartzean. «Momentuak, egoerak, bizipenak... gordetzeko nahia izan dut gaztetandik». Horregatik eman zuen izena Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen. Horregatik dauka argazkilaritza lanbidetzat: argazkilaria da, eta baita argazki irakaslea ere, Donostian, lanbide heziketako diseinu zentro batean.

«Eta lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen». Ingurukoetan, nazioartean... Sariak ere lortu zituen. Eta pixkanaka-pixkanaka bere unibertsoa taxutzen joan da. Zuri-beltzean. «Koloretako argazkiak ere egiten ditut, baina uste dut hobeto espresatzen naizela zuri-bel-

tzean. Zuri-beltzak gehiago pentsarazten du, eta irudimena sustatu. Interpretazio bide gehiago eskaintzen ditu, bakoitzak nahi dituen koloreak aukeratzen dituelako. Norberak nahierara margotzen ditu argazkiak».

Zuri-beltza eta erretratuak, horiek atsegin ditu gehien. «Asko gustatzen zait jendea erretratatzea». Baina denetik egitea egokitzten zaio. Paisaiak, natura hilak, estudioko argazkiak... eskatzen diotena. «Eta eskolan, asko egiten dut publizitate argazkilaritza. Niretzat denean, berriz, gehiago interesatzen zait sentimenduen argazkilaritza». Irudietan sentimenduak agertzen direla dio, «ia oharkabean. Egunero gertatzen zaizkizun gauzak. Adibidez, gaizki sentitzen bazara, Ondarreta lausotuta ikusten duzu, lentea malkotan balego legez. Eta ondo sentitzen zarenean ere igarri egiten da. Sentimenduekin batera aldatzen dira argazkiak, norberaren aldarrearen arabera».

«Bidaletara ere beti daramat kamera». Egia esateko, Mariri zaila gertatzen zaio argazkirik gabeko bizimodua irudikatzea: «Zaletasuna zena eguneroko beharra bihurtu da. Argazkirik egin ez badut, jai-ki ez banintz bezalaxe da. Nirekin doan zerbait da. Egun dena igarotzen dut argazki artean: nireak ez



Lorea.

■ nortasun agiria

- **Izena:** Mamen Mari.
- **Jaio:** Donostian, 1962an.
- **Ogibidea:** Argazkilaria da, eta argazkilaritzako irakaslea, Ceimpro zentroan.
- **Argazkilaritza:** Neskatoa zela hasi zen ikasten, aitonaarekin. 1982an, Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen sartu zen. Zuri-beltza da haren eremua.
- **Sariak eta erakusketak:** Urteak daramatza argazki lehiaketetan parte hartu gabe, baina aurretik hainbat sari eskuratu ditu: Gipuzkoako Trofeoa, FIAP... Erakusketak ere mordo egin ditu, Euskal Herrian zein kanpoan.
- **www.federacionfo-tovasca.org**



badira, ikasleenak... eguneroko kontua da».

«Buruan dudak ideia gauzatu nahi izaten dit. Arreta piztu didan formari, jarrerari, norbaiti... argazkia nola egin diezaiokedan pentsatzen dut, eta ideia hori eta argazkia bat datozenean geratzen naiz gustura». Argazkilaritzaz gainera, arkitektura, artea, pintura... arte plastikoekin lotura duen dena gustatzen zaio.



Begirada, kapela azpitik.



Inauteriak.



Isla urdina.